



Getariako Udala

Elkarte agurgarria,

Azken aste hauetan momento berezi eta gogorak bizitzea tokatu zaigu guztioi. Osasuna eta bizitza lehentsi ditugu eta guztiok izan dugun jarrera, orokorrean, eredugarria izan da; txapela kentzekoa. Orain deseskalada deitu dioten honetan galdera, kezka, behar eta erantzun berriak datozkigu guztioi baina garbi dagoena da bakoitzaren jarrera eta erantzunkizuna oso garrantzitsua izaten jarraitzen duela.

Osasun krisiari ordea bestelako gora-beherak gehitu zaizkio, tartean arlo ekonomikoarena. Dakizuen bezala diru kontu hauek askotariko sufrimendu eta buruhaustek sortzen ari da eta Getariako Udalean ere bere eragina izango du. Aldunditik diru sarrera Nagusia den Fondo Forala %20-25an murriztuko digutela esan digute eta beraz, Udalak, 2020rako zuen aurrekontua berrikusi behar izan du. Jada egin dugu ariketa hori eta zuekin, herriari bizitza ematen diozuen Elkartekin, konpartitu nahiko genuke egoera. Uste dugu zuzenean ezagutu behar dituzuela aurrekontuan egindako ajustek, gerakinaren egoera etab. Eta nola ez, zuen iritziak eta proposamenak jaso nahi ditugu. Jakin, eta gaizki ulerturik egon ez dadin, gaur-gaurkoz zuei zuzendutako partidak bere horretan jarraitzen dutela.

Beraz, bilera ireki batetara gonbidatzen zaituztet Elkarteko Zuzendaritza osatzen duzuen kide guztiok. Getariako Udalak zuen presentzia bihotzez eskertuko luke, zuen jakintza eta ikuspegia behar-beharrezkoa baititugu.

Eguna: Maiatzak 19, asteartea

Ordua: 19:00etan

Lekua: Eskolako Aretoa

Egoerak eskatzen duen bezala segurtasun neurriak beteko dira: sartzeraoan eskuak GELarekin garbitu, 2 metroko tartek errespetatu eta maskarilla (bakoitzak berea ekartzea eskertuko genuke)

Besterik gabe, bertan ikusiko garelakoan

Haritz Alberdi Arrillaga

Getariako Alkatea

